



ERRETERIA UDALA

Agiritegia eta Argitalpenak / Archivo y Publicaciones

Espediente zk./Nº expediente: 2024SDBD0003
Gaia/Asunto: Koldo Mitxelena XVII. Ikerketa Beka 2024
Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

DEKRETUA

**Legeak eman dizkidan eskumenez baliatuta,
ondorengo Dekretua eman dut:**

AURREKARIAK

Agiritegi eta Argitalpenetako Zinegotzi Delegatuak 2024ko maiatzaren 16an emandako 1402 zenbakidun dekretuaren bidez onartu zen 2024ko Koldo Mitxelena XVII. Ikerketa Bekaren deialdia (2024ko maiatzaren 24ko GAOn argitaratua).

Beka horretara bi eskaera aurkeztu dira eta biak baloratu ditu Epaimahaiak 2024ko azaroaren 11n egindako bilkuran.

Epaimahaiko burua Itsaso Cruz Etxeberria Artxibo eta Argitalpenetako zinegotzia izan zen, Leonor García Vázquez Artxiboko teknikariarekin idazkari gisa eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) izendatutako hiru adituren laguntzarekin: Mila Amurrio Vélez, Ane Larrinaga Rentería eta Gidor Bilbao Telletxea (batzordekideak).

Oinarrietan jasotzen den bezala, Epaimahaiak 2024ko azaroaren 11n egin du proposamena.

Agiritegia eta Argitalpenetako teknikariak 2024ko abenduaren 2an txostena eman du.

Kontuhartzaile ordezkioak 2024/12/11n espedientea fiskalizatu du.

Antolaketa Batzordeari hurrengo bileran jakinaraziko zaio.

DECRETO

**En uso de las atribuciones conferidas por la Ley,
vengo a dictar el siguiente Decreto:**

ANTECEDENTES

Mediante decreto número 1402 de la Concejala Delegada de Archivo y Publicaciones de fecha 16 de mayo de 2024 se aprobó la convocatoria de la XVII. Beca de Investigación Koldo Mitxelena 2024 (publicada en el BOG de 24 de mayo de 2024).

A dicha beca se han presentado dos solicitudes, y ambas han sido valoradas por el Tribunal en la reunión celebrada el 11 de noviembre de 2024.

El Tribunal fue presidido por la Concejala de Archivo y Publicaciones Itsaso Cruz Etxeberria, con la técnica de Archivo Leonor García Vázquez como secretaria y con la ayuda de tres personas expertas en la materia nombradas por la Universidad Vasca de Verano (UEU): Mila Amurrio Vélez, Ane Larrinaga Rentería y Gidor Bilbao Telletxea (vocales).

Tal y como establecen las bases, el Tribunal ha emitido propuesta con fecha 11 de noviembre de 2024.

La Técnica de Archivo y Publicaciones ha emitido informe con fecha de 2 de diciembre de 2024.

La interventora suplente con fecha 11/12/2024 ha fiscalizado el expediente.

Se informará a la Comisión de Organización en su próxima sesión.



ERRETERIA UDALA

Agiritegia eta Argitalpenak / Archivo y Publicaciones

ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Diru-laguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.
- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).
- 2024ko maiatzaren 16an Agiritegia eta Argitalpenetako Zinegotzi Delegatuak emandako dekretuaren bidez onartu ziren XVII. Koldo Mitxelena Ikerketa Beka 2024 diru-laguntza ematea arautzeko Oinarri Orokorrak.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal Aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

- 1.-2024ko Koldo Mitxelena XVII. Ikerketa Beka (15.000 euroko kopuruarekin doitu) Maialen Jiménez Garaialderi ematea "Orereta-Errenteriako emakumeak herriko festen antolaketan. XX. eta XXI. mendeen bitarteko ibilbidearen hurbilpen antropologikoa" lanagatik.
- 2.- Maialen Jiménez Garaialderen alde 4.500 euroko gastua baimendu eta xedatzea, beka horren lehen ordainketari dagozkionak, 1.1830.480.01.463.00 2024 (8965) partidaren A-1133/2024 zorpekoaren kargura.
- 3.- Maialen Jiménez Garaialderen aldeko bigarren ordainketari dagozkion 4.500 euroko gastua 2025eko

NORMATIVA APLICABLE

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
- Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG 10/08/2015).
- Las Bases Generales para la concesión de subvenciones a la XVII Koldo Mitxelena Ikerketa Beka 2024 se aprobaron por decreto de la Concejala Delegada de Archivo y Publicaciones de fecha 16 de mayo de 2024.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la Asesora jurídica municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

RESUELVO

- 1.- Conceder la XVII Beca de Investigación Koldo Mitxelena 2024 (dotada con un importe total de 15.000 euros) a Maialen Jiménez Garaialde por el trabajo "Orereta-Errenteriako emakumeak herriko festen antolaketan. XX. eta XXI. mendeen bitarteko ibilbidearen hurbilpen antropologikoa".
- 2.- Autorizar y disponer un gasto de 4.500 euros a favor de Maialen Jiménez Garaialde correspondiente al primer pago de dicha beca, con cargo al contraído A-1133/2024 de la partida 1.1830.480.01.463.00 2024 (8965)
- 3.- El gasto de 4.500 €, referente al segundo pago a favor de Maialen Jiménez Garaialde se hará con



ERRETERIA UDALA

Agiritegia eta Argitalpenak / Archivo y Publicaciones

aurrekontuko kreditu-konpromisoaren kargura egingo da.

4.- Maialen Jiménez Garaialderen aldeko hirugarren ordainketari dagozkion 6.000 euroko gastua 2026ko aurrekontuko kreditu-konpromisoaren kargura egingo da.

5.- Ordainketa era hurrengoa izango da:

- Kopuru osoaren %30a (4.500 euro), beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan dagokion PFEZaren atxikipena aplikatuta.
- Kopuru osoaren %30a (4.500 euro), beka ematen zaionetik 9 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztu eta Epaimahaiak ontzat eman ondoren. dagokion PFEZaren atxikipena aplikatuta.
- Gainontzeko %40a (6.000 euro), bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta Epaimahaiak ontzat eman ondoren dagokion PFEZaren atxikipena aplikatuta.

6.- Ordenantza arautzailean edo diru-laguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak beka berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, aplikagarria den araudian agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta diru-laguntza ordaintzen den unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

7.- Udal Aurrekontuaren kargura beka jasotzeko, beharrezkoa da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea, legeak horrela eskatuko balu, baita alegatutako merezimenduen

cargo a compromiso de crédito del presupuesto de 2025.

4.- El gasto de 6.000 €, referente al tercer pago a favor de Maialen Jiménez Garaialde se hará con cargo a compromiso de crédito del presupuesto de 2026.

5.- La forma de pago será la siguiente:

- El 30% del total (4.500 euros) en el momento de concesión de la beca, a modo de anticipo aplicándose la retención de IRPF que corresponda.
- 30% del total (4.500 euros) a los 9 meses de haber concedido la beca, después de haber presentado el informe justificativo del trabajo realizado y del trabajo a realizar y de que el Tribunal dé su autorización, aplicándose la retención de IRPF que corresponda.
- El 40% restante (6.000 euros) al término de la beca, después de haber presentado el trabajo y de que el Tribunal dé su autorización, aplicándose la retención de IRPF que corresponda.

6.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la ordenanza reguladora o en la concesión de la beca supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la normativa aplicable.

7.- Para la percepción de la beca con cargo al Presupuesto Municipal, será requisito el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Hacienda Foral y Seguridad Social, si legalmente



**ERRETERIA
UDALA**

Agiritegia eta Argitalpenak / Archivo y Publicaciones

justifikazioa ere.

así le correspondiera, así como la justificación de los méritos alegados.

8.- Ebazpen hau pertsona interesatuei jakinaraztea eta Udal kontuhartzaitzari berri ematea.

8.- Notificar esta Resolución a las personas interesadas y comunicarla a la Intervención Municipal.

9.- Antolaketa Batzordeari hurrengo bileran jakinaraztea.

9.- Informar a la Comisión de Organización en su próxima sesión.

Erreterian, sinaduraren den datan

En Erretería, a la fecha de la firma

Agiritegi eta Argitalpenetako Zinegotzi Delegatua / Concejala Delegada de Archivo y Publicaciones

Itsaso Cruz Etxeberria



EKS | CSV: **ESKUd3cd5988-e7c9-4571-91d1-30c4c8d7bbb3**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024SDBD0003-DEKRETUA II/DECRETO II (ERRENTERIAKO UDALA)